

**Berriro
egin diote
ebakuntza**

Zaragozan darrai
Pasabaneak ▶ 3



Oskorrik hasiko du Tolosako urriko kultur egitarau oparoa

PARTAIDEA ▶ Xabier Zeberio taldekide tolosarra
«gogotsu» dago gaurko kontzertuarekin ▶ 2,3



Oskorrik bere azken diskoko doinuak aurkeztuko ditu gaur gauean Leidor zineman. HITZA



LEIRE MONTES

Gerontologikoko greba bertan behera utzi dute

TOLOSA ▶ Zaintzan diharduten langileek lan
baldintzak mantentzea lortu dutelako utzi
diote larunbatean hasitako grebari ▶ 5

LEITZA-ARESO ▶

**Olazabal eta
Iriarte pilota
torneoan
partaide**

Jubenil mailan
aritzen dira ▶ 7

TOLOSA ▶

**Rodriguez Galindo etxeratzeko
erabakiaren kontrako iritzia
nagusitu dira alderdien artean**

EAJK, Tolosa Bizirik-ek eta EAK justiziaren «bi aurpegiak»
salatu dituzte; PPrentzat «erabaki juridikoa» da ▶ 4

**IKASI ARABIERA
TOLOSAN**

Irakasle arabiarra
Maila guztiak
Goiz, arratsalde
eta larunbatetan
686 971 962

ARROPADENDA

UDAZKEN
ETA NEGUKO
TENPORADA
BERRIA

B&B

Pablo Gorosabel, 17
TOLOSA
Tel.: 943 67 45 29

KULTURA ▶

Urrikoak, gain-gainean

Oskorri taldearen kontzertuak emango die hasiera gaur gauean urriko kultur ekitaldiei; Probintziako Abelgorri Lehiaketa eta XVIII. Euskal Herriko Gazta Lehiaketa bihar izango dira, goizetik eguerdira

IRATXE ETXEBESTE

Tolosako Abesbatza Lehiaketa, Probintziako Abelgorri Lehiaketa, Euskal Herriko Gazta Lehiaketa, Tolosako Orefoiaren emanaldia, Oskorriren kontzertua, antzerki emanaldiak... Bete-bete dator urriko kultur egitaraua. Udako oporraldia atzean utzita, askotariko ekin-tzak prestatu nahi izan dituzte udal arduradunek hilabete osorako, eta gaur hasi eta azkenetaraino, ia egunero izango da herriko gune ezberdinetan ekitaldiren bat edo beste.

Zine-klubak hiruzpalau hilabete atsedena izan du udan, eta ikasturte berrirako film bikainak antolatu dituzte arduradunek. Erakusketen programazioa, berriz, eten egin behar izan dute udal ordezkariak, Aranburu Jauregiko erakusketak gelak itxita egongo direlako hilabete osoan hezetasun arazoak direla eta. Berriz ere arazo horiek konpontzean ekingo diete erakusketak antolatzeari.

Urriko ekitaldiekin hasteko, Oskorri musika taldearen kontzertua izango da gaur gauean Leidor aretoan. Hona hemen azaroko bitarte herrian izango diren gainerako ekimenak, banan-banan:

ABESBATZA LEHIAKETA

Naizoartekoa. Tolosako Abesbatza Lehiaketa hilaren 28ean hasi eta azaroaren 1era luzatuko da, Leidor aretoan, bereziki, Tolosako Ekinbide Etxeak antolatuta. Japonia,



Urriaren 28an hasiko da Abesbatza Lehiaketa; argazkian, Villabonako Eresargi Txiki abesbatza, ia. J. SAIZAR

Kuba, Ukraina, Errusia, Txina, Suedia... dira partaide.

ANTZERKIA

'Mario por alusion'. Rafael Martin aktoreak Mario por alusion antzerki monologoa eskainiko du hilaren 15ean, ostirala, Leidor aretoan. 22:30ak aldera hasiko da antzerki saioa.

'Adictos al regimen'. Juanjo de la Iglesia eta Tonino Guitian aktoreen eskutik, *Adictos al regimen* antzezlan izango da hilaren 22an, ostirala, Leidor aretoan. 22:30ean hasiko da antzerki emanaldia.

ARKEOLOGIA ASTEA

'Aztarna'. Oraindik ez dago konfirmatuta, baina, printzipioz, Aztarna Arkeologia Astea egingo dute Antonio Maria La-

bien Kultur Etxean urriaren 18a eta 22a bitartean.

AZOKAK

XVIII. Euskal Herriko Gazta Lehiaketa. Lizardi Kultur Elkartek eta Tolosako Udalak antolatuta, bihar egingo dute XVIII. Euskal Herriko Gazta Lehiaketa Beotibar pilotalekuan. Goizetik eguerdira iraungo du lehiaketak.

Abelgorri Lehiaketa. Bihar egingo dute Probintziako Abelgorri Lehiaketa Ferialekuan. Arraza ezberdineko abelgorrien erakusketak eta subasta izango da, Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta. Goizean hasi, eta eguerdian amaituko da.

IKUS-ENTZUNEZKOA

'Ruta 181'. Palestinaren Lagu-

nek elkarteak antolatuta, Ruta 181 filma eskainiko dute urriaren 7an eta 8an Kultur Etxean. Israelera eta Palestinara eginko bidaia bati buruzkoa da filma, palestinar baten eta israeldar baten begietatik ikusita. 19:00etan hasiko da emanaldia bi egun horietan.

MUSIKA

Oskorri. Oskorri musika taldeak kontzertua eskainiko du gaur Leidor aretoan 22:30ean hasita. Sarrerak salgai dira Kultur Etxean eguerdia bitarte 8 eurotan; gazte txartelarekin, 6 eurotan. Gauean, leihatilan ere izango dira salgai.

Tolosako Orfeoia. Orkestra Opera gaua eskainiko du Tolosako Orfeoia hilaren 9an. larunbatarekin, Leidor aretoan. 21:00etan hasiko da emanaldia, eta Ramos Azkarate

zenari omenaldia egingo diote emanaldi horrekin. Sarrerak salgai dira Kultur Etxean.

Tolosako Musika Banda. Pilar Eguna dela-eta kontzertua eskainiko du Tolosako Musika Bandak hilaren 16an, larunbatarekin, Plaza Berrian iluntzean.

ZINE-KLUBA

'Cold mountain'. Anthony Mingella zuzendariaren *Cold mountain* filma hilaren 7an eskainiko dute, 21:30etik aurrera, Leidor zinema aretoan.

'El abrazo partido'. Daniel Burman zuzendariaren *El abrazo partido* filma hilaren 14an eskainiko dute, 21:30etik aurrera, Leidor zinema aretoan. Zilarrezko Hartza eta Epaimahaiaren Saria jaso zuen filmu horrek Berlin 2004 jaialdian.

'Bowling for Columbine'. Michael Moore da filmaren zuzendaria, eta hilaren 21ean eskainiko dute filma Leidor zinema aretoan, 21:30ean hasita. 2002ko dokumental onenaren Oscar saria eman zioten filmari.

ZINEMA

Tinko. Tinko, zinema euskaraz eskainiko dute hilaren 6an, asteazkenarekin, Leidor zinema aretoan ikasleentzat. Goiz partean izango da filma.

Zineskola. Hilaren 18rako dago iragarrita egitasmo hori Leidor aretoan. Ordurik ez dute zehaztu oraindik.

Tolosaldeko eta leitzaldeko
berriak euskaraz



Euskal Herriko eta mundu zabaleko
berriak ere euskaraz



Aukeratu euskarazko prentsa!

Informazio gehiagorako:
943 30 43 46 edo harpidetza@hitza.info

XABIER ZEBERIO ▶ OSKORRI TALDEKO KIDEA

«Musikari garen aldetik zuzenean aritzea gustatzen zaigu»

Imanol Garcia ▶ Oskorri taldea aski ezaguna da musika munduan, baina Tolosara ez da sarritan hurbildu, herritar bat taldekidea izan arren. Horregatik, Xabier Zeberio gogotsu dago gaurko kontzertua dela eta.

Zenbatgarren aldia da gaurkoarekin zure herrian Oskorriekin kontzertu bat ematen duzula?

Pub ibiltariarekin orain dela lau edo bost urte egon ginen eta Kilometroetan ere izan ginen, baina, bestela, taldean naogenetik ez dut Oskorriekin Tolosan beste kontzerturik eman.

Berezia izan behar du adiskide eta ezagunen aurrean kontzertua ematea.

Bai, berezia da etxean jotzea. Urte batzuk badira Oskorri ari naizela eta, lehen esan bezala, ez gara askotan aritu Tolosan. Horregatik gogoarekin nago kontzertu hau egiteko. Ea herritarrak animatzen diren Leidorra etortzen. Gure aldetik, eta ikusle goaren laguntzarekin, espero dugu giro ona sortuko dugula.

Desertore diskoaren abestiak joko dituzue. Zer suposatzen du musikari batentzat zuzenean aritzeak?

Gure burua zuzeneko taldeztat daukagu eta musikari garen aldetik hori gustatzen zaigu bereziki. Entzulegoarekin harreman zuzena bilatzen dugu eta horri garrantzia handia ematen diogu. Diskoa, azken finean, tresna edo bitartekoa da gero zuzeneko emanaldiak egiteko. Kontzertuaren oinarria *Desertore* diskoa izango da, baina taldearen betiko abestien bertsiio berriak ere joko ditugu.

Asko aldatzen da diskoaren soinutik gero kontzertu baten entzuten denarekin?

Disko bat grabatzerakoan estudioek *trampa* egiteko aukera ematen dizute, milaka soinu ezberdin sartzeko aukera baitago. Guk, hala ere, diskoak grabatzerakoan gero kontzertuan entzungo denaren ahalik eta berdintsuena egiten dugu, ahalik eta disko errealean egiten saiatzen gara.

Nolako harrera izaten ari zarete *Desertore*ren zuzeneko emanaldiekin?

Azken sei hilabetetan estatu guztian zehar ibili gara: Galizia,



IMANOL GARCIA

Katalunia, Extremadura... eta oso harrera ona izan dugu bertako folk jaialdietan. Portugalen ere kontzertu dezente eman ditugu eta han ere harrera ona izan dugu. Bestalde, azaroan Londonen kontzertu bat emango dugu diskoaren aurkezpena egiteko. Izan ere, Frantzia eta Ingalaterran diskoaren berri izaten ari dira, bertako bi banatzaile garrantzitsuren bitartez. Gainera bi herrialdeetako *World music*-eko kritikariek interes handia erakutsi dute. Espero dugu datorren udaran inguru horietan kontzertuak ematea.

Nola definituko zenuke disko bera?

Oskorriren berezko soinua mantentzen da, tradizioetik abiatutako abestiak moldatuz. Perkusioak garrantzi handiago izan du, perkusionista berri bat hasi delako taldean. Zuzenean ere perkusioak gorantza egin du, indar gehiago dauka. Diskoak pop ikutua ere badu, produktore lanetan aritu den Luis Lozano musika mota horretan ibili delako.

Hiru abestiren doinuak zuk konposatuak dira.

Ezin erran nizin hitzez antzinako doinu batean oinarritua dago, Iparraldeko eliz kanta zahar bat. Harkaitz Canok hitzak moldatu ditu eta amodiozko abestia bilakatu da. Harkaitz Canok berak hitzak jarri dizkio nik sortutako doinu bati, soldadu desertore baten istorioa kontatuz. Bestean, Errepublika garaiko euskaltzale, sozialista, kristau eta abar luze bat izan zen Toribio Etxebarriaren kopia batzuei musika jarri diet. ◀

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

TAO Tolosan

Idatzi honen bitartez nire iritzia xumea eman nahi dut argitara OTA sistemari Tolosan ematen ari zaien erabileraz.

Lehenik esan, ez dela Tolosan aparkaleku arazoa kontzertuaren irtenbidea. Noski sistema hau ezarri zenetik aparkatzeko toki hutsak aurkitzen direla, baina berarengatik ordaindu egin beharra dago. Esan ere esaten dute: «Donostia joatean berdin pasatzen da eta ez gara kezaketen». Ongi, baino Donostiaren eta Tolosaren artean ezberdintasun handia dago. Tolosa Tolosaldeko zentru da, herri txiki ugari inguratua, eta bertako jendea Tolosara jaisten da erosketak egitera, lanera... aparkatu nahi izanez gero ordaindu egin behar duelarik.

Herri txiki hauen eta Tolosaren arteko ibilgailu publikoaren sistema eskasa da; jendeak bere autoa erabili behar du bertatik bestera ibiltzeko. Donostia, ordea, handia da Tolosaren aldean, ibilgailu sare garrantzitsu eta funtzional batekin: autobusak daude kanpoaldetik hiri barrurantz, 10-25 minuturo zonalde bakoitzetik.

Bestalde, sistema honen azken zabaltzearekin *doan* diren aparkalekuak urriagoak dira, eta lehenago zegoen kopurua nahiko edo ia erabat beteak aurkitzen baziren, orain gutxiago izanda... Baina oso ondo dago lehengo asteartean, irailaren 28an, *Diario Vasco*-n azaltzen zen kronikan eginko komentarioa: «(...) así que la gente que viene a trabajar y aparca gratis en estos barrios no podrá hacerlo ahora (...)).»

Jende hori doako aparkalekuek aprobetxatzen ariko balitz bezala, auzo horietako bizilaguntzat eskusiboko direnaren zentzua emanez. Ikargari ondo esana, Tolosa Tolosaldeko, eta ingurukoak molda daitezela. Eskerrak bultzatu behar den Tolosaren irudia Hiri Komertzialarena den. Gainera, ez al zen TAO sistema ezartzearen arrazoietakoa bat?

Ez dut ulertzen Udalak aparkalekuei eman nahi dien irtenbidea. Hau al da bere garaian esandako 2.000 aparkalekuak sortzeko bidea? Hala bada eskerrak asko, Tolosaldean bizi garenon partetik, eskatuko baitugu diru laguntza Tolosan egunero aparkatu ahal izateko.

Eskerrak asko bene-benetan Tolosako Udalari sistema hau era honetan ezartzeagatik.

ERIZ LASA ▶ LEABURU

MENDIA ▶

Behatsetako haragia osatu ez zaiolako Pasabani ebakuntza egin diote berriro

Hezurak agerian zeudenez, bost milimetro gehiago moztu dizkiote

I. GARCIA

Edurne Pasabani nahi baino gehiago luzatuko zaio Zaragozako erietxeko egonaldia. Pasa den asteazkenean berriro egin zioten ebakuntza oinetako behatsetan. Izan ere, lehenengo ebakuntzaren ondoren, behatzen kanpoaldean gelditutako haragia ez zen behar bezala zentzatu. Haragi zati hori kendu eta gero hezurra agerian gelditu zaio, bost milimetro inguru, eta horixe moztu berri

diote herenegun egindako ebakuntzan.

HITZA-ri egindako adierazpenetan, animoz «ondo» dagoela azaldu du Pasabane. Ebakuntzaren ondoren egindako sendaketan ikusi ahal izan denez, «sendagileek esan didate behatzen egoera onera egiten ari dela». Mendizale tolosarrak adierazi duenez, «berriro luzatzen ari da osaketa gutzia, baina espero dut astelehenean etxera bidaliko nautela». Egun hauetan bera bakarrik dago

Zaragozan, bere taldekide Juanito Oiarzabalek dagoeneko erietxea utzi baitu.

Etxera iristerakoan, Edurne Pasabane hilabete eta erdiko errehabilitazio epea izango du, makulurik gabe oinez ibiltzen hasi aurretik. Mendizaleari K2 mendian behatzak izoztu zitzaizkion eta horren ondorioz oin bakoitzetik behatz batean —behatz potoloaren ondokoa bi kasuetan— izan ditu ebakuntzak eta behatz potoloak arraspatu dizkiote.

'LASA ETA ZABALA AUZIA' ▶

«Justiziak bi aurpegi ditu»

Rodríguez Galindo etxeratzeko erabakiari buruz galdegin diegu alderdi politikoei

L. MONTES - I. ETXEBESTE

Osasun arazoengatik», Enrique Rodríguez Galindo, Guardia Zibileko jeneral ohiak datozen egunetan kartzelatik irten ahal izango duela erabakita dauka Espainiako Espetxe Erakundeak, eta atzo jakinarazi zuen publikoki. Hortaz, poliziaren zaintzapean egotea onartuko balu, Ocaña II kartzelatik atera, eta etxean beteko luke Rodríguez Galindok Lasa eta Zabala bahitu eta hiltzeagatik ezarritako espetxe zigorra. Erreakzio ugari sortu ditu erabaki horrek azken bi egunetan, eta HITZAK Tolosako alderdi politikoetako ordezkarietak jaso ditu.

Alderdi Popularreko Angel Yañezek esan du epaileak direla «iritzia ematen dituztenak», eta berak ez duela haiek esandakoa epaituko: «Erabaki juridikoa da eta ez dut horren inguruko baloraziorik egingo».

Gainerako alderdietako ordezkariak, ordea, gaitzetsi egin dute Espainiako Espetxe Erakundeak hartutako erabakia. EAko zinegotzi Onintza Lasak onartezina iritzi dio neurriari: «Berritoki ere ikusi dugu legea era ezberdinerik aplikatzen dela pertsonen arabera. Oso kasu larriaz ari gara, leporatzen diotena oso larria delako. Galindoren egoera pertsonala



Joxean Lasa eta Joxi Zabala 1983. urtean bahitu eta hil zituzten. HITZA



hartu da kontuan; beste hainbat kasu ere badira horrela, eta horiei kontrakoa aplikatzen zaie: etxetik urrutzea. Justiziak bi aurpegi ditu. Burua demokratizatzen duenak ezin du hau onartu». Espainiako Gobernua aldatu den arren, «lehengoaren neurri berak» ezarzen ari dela uste du Lasak.

Tolosako alkate Jokin Bildarratzek «herrian bitarteko momentu beltzak» gogoratzen ditu Galindoren izena entzutean. Haren esanetan, «giza eskubiak urratzen dituenak kartzelan egon behar du, baina gaitzetasun sendaezina baldin badu, legea bete behar da, eta handik ateratzeko neurriak hartu. Baina kasu guztietan. Esteban Nietoren kasuan, be-

randuegi hartu ziren neurri horiek». Presoak nondik datozen, haiekiko politika ezberdina da Bildarratzek aburuz. «PSOEn garai beltzetan gertatu zen hura, eta orain, PPK lagunduta, beste aro beltz batean daude».

«Bere garaian salatu genuen esku biguinez epaitu zutela. Orain PSOek erakusten du Euskal Herriaren historia beltzetan erantzule eta terrorista izan den bati zer nolako tratua emateko gai den». Horixe dio Tolosa Bizirik-eko ordezkari Antton Izagirrek Espainiako Espetxe Erakundearen erabakiari buruz galdetuta. «Sinesetzea da bere burua demokratizatzen jotzen duen Gobernuak horrelakorik egitea. Erabakia hartuta dago Euskal Herriaren

eta euskal herritarren kontra, mespretxu eta burla eginez, hainbat urtetako atxilotu, min eta sufrimenduari».

Izagirrek dioenez, neurri ezberdinak ezartzen dira, PSOEk «eskularru zuriarekin tratatzen dituelako bere lagun eta kideak, eta oso era ezberdinean Euskal Herriaren askapenaren alde daudenak, haiek kriminalizatzeko». Alderdi Sozialistak «ez ditu garai haiek gainditu, eta aro beltz horietara itzuli da».

Hirugarren gradurik ez

Rodríguez Galindo, 65 urtekoa, preso dago 75 urteko espetxe zigorra betetzen, eta kartzelatik ateratzen bada, Joxean Lasa eta Joxi Zabala hiltzeagatik zigortutako arteen Angel Vaquero Guardia Zibileko kapitain ohiak baino ez du preso jarraituko, Julen Elgorriaga Gipuzkoako gobernadore zibil ohiak «osasun arazoengatik» aske baita 2001eko uztailetik, eta Felipe Bayo eta Enrique Dorado guardia zibil ohiak hasieratik ari direlako betetzen zigorra hirugarren graduan.

Bost alditan eraman dute Rodríguez Galindo ospitalera espetxean dagoenetik —abuztuaren 18an eraman zuten azkeneko, bihotzeko gaitzagatik—. Eskumuturreko telematikoen bidez kontrolatzea baztertu egin du Espainiako Espetxe Erakundeak, «ETAren kontrako borrokan izandako inplikazioagatik» bizkartzainak behar dituzenez, beti kontrolpean izango dela argudiatuta. Rodríguez Galindo etxeratzeko balute, baina, ez lukete graduz aldatuko, eta bigarrenean jarraituko luke.

Hala ere, asko dira azkenaldian jeneral ohiaren kartzela erregimena aldatzeko egin dituzten saiakerak. Espainiako Auzitegi Nazionalak jeneral

ZIGORTUAK ▶



Rodríguez Galindo. HITZA

KARTZELAN

Enrique Rodríguez Galindo. 75 urteko kartzela zigorra ezarri zioten; Ocaña II espetxean dago, baina handik atera ahalgo da laster.
Angel Vaquero. 73 urteko zigorra betetzen ari da.

KARTZELATIK KANPO

Julen Elgorriaga. 75 urteko kartzela zigorra ezarri zioten. 2001eko uztailaren 24ean aske utzi zuten, osasun arazoengatik.

Felipe Bayo eta Enrique Dorado. 71 urteko zigorra hirugarren graduan betetzen ari dira hasieratik, aurretik beste delitu batzuegatik ezarritako espetxe zigorrak hirugarren graduan betetzen ari zirelako.

ohiari hirugarren gradua ematea ahalbidetu zuen joan den udaberrian, eta gauza bera proposatu zuten ondoren Ocaña II kartzelako arduradunek. Espainiako Espetxe Erakundeak, baina, uko egin zion eskareri.

Antza denez, Rodríguez Galindo bigarren gradutik hirugarrenera aldatzen saiatu dira baita ere Jose Luis Corcuera eta Jose Barrionuevo Espainiako barne ministro ohiak eta Rafael Vera segurtasun idazkari ohiak azkenaldian, Jose Antonio Alonso ministroari eta Mercedes Gallizo Espetxe Erakunde zuzendariari deika aritu direlako hori eskatzeko.



Villabona - Kultura

KONTZERTUA

'DONOSTIako AKORDEOI ORKESTRA SINFONIKOA'

Urriak 1 Ostirala • Gaueko 22:30ean
GUREA ARETOAN

SARRERA DOAN



Udal Kultura Batzordea KUTXA FUNDAZIOA

JOSEAN ITYRGINTZA

- iturgintza
- berogintza
- gasa
- gasoilezko instalazioak

Kale nagusia, 30 • 943 69 33 52 • IRURA ☎ 656 41 68 08
656 41 69 30

JAKON INGELESA

— AZKEN 3 PLAZAK —

- HELDUENTZAT
- HASIERAKO MAILA "0"
- ASTEAN 3 ORDU

INFORMAZIOA:
Telf. 943-652372 (15:30etik - 19:30era)
P.Gorosabel 2 1º (Trianguloan) **TOLOSA**

GIZARTEA ▶

Gerontologikoko langileen greba bertan behera

Pertsonen zaintzan diharduten langileek lan baldintzak mantenduko dituzte



Gerontologikoko langileek larunbatean egindako mobilizazioa «lan baldintza duinak» aldarrikatuz. HITZA

IÑIGO TERRADILLOS

Pasa den larunbatean Gerontologikoko langileek ekin zioten grebari atzo eman zitzaion amaiera. Lan baldintzak mantendu eta zerbitzuetan kalitate murrizketarik ez izatea eska-

tzeko hasi zuten, Foru Aldundiak, Gerontologikoak eskaintzen duen zerbitzuaren esleipena aldatzeko asmoa azaldu zuela eta. Orain arte Eulen bazen horren arduraduna, gaurtik aurrera Cobra enpresaren esku geratuko litzateke.

Cobrak Foru Aldundiaren oniritziz egindako planteamendurekin langileen egoera nabarmen aldatzen zen, eta planteamendu honekin ados ez zitrelako hasi zuten greba.

Egoera ikusita, Cobrak zerbitzuaren jabe ez zela egingo

adierazi zuen eta ondorioz, Diputazioak Clece enpresari egin zion eskaintza, honek ere ezezkoa erantzun zuelarik.

Batzar Nagusietan

Beste hainbat mobilizazioen artean, asteartean, Batzar Nagusien aurrean kontzentrazioa egin zuten Gerontologikoko langileek Eibarkoekin batera. Egun honetan, Esther Larrañaga, Gizarte Politikako diputatuak pertsona nagusien gaia tratatzeko agerraldia egin zuen hainbat politikariek eskatuta.

Larrañagak Tolosa eta Eibar-ko zentroetan langile kopurua handiegia zela adierazi zuen eta Aldundiak, sortutako desberdintasunak areagotu baino konpondu egin nahi dituela. Bestalde, kontraturiko orden murrizketa egon dela onartu zuen, baina ez enpresari zuzenduriko diru kopurua.

Alderdi politikoan aldetik, erreakzioak iritsi ziren; EAJ-k «lan ona egin dela» baloratu zuen eta «sistemak, berregituraketa bat behar zuela» eta EA-k eta PSE-EE-k «kalitatea mantentzea zela garrantzitsua» adierazi zuten. PP-k, «ordu murrizketarekin orain arteko

LAN BALDINTZAK ▶

Cobra enpresak, Foru Aldundiaren oniritziz planteatu zituen lan baldintzak:

- ▶ Soldaten %30eko murrizketa.
- ▶ 186 lanordu gehiago urtean.
- ▶ Antzintasuna, plusak eta baja egoeretan lorturiko eskubideen erabateko galera.

zerbitzuak mantentzen ziren» galdetu zuen. EB-k «zerbitzu publikoarekin amaitu» nahi dutela adierazi zuen eta Aralar-ek «arazoaren funtsa argitzea» beharrezkoa zela.

Greba bertan behera

Pertsonen zaintzan diharduten langileek lortu dute orain arte zituzten lan baldintzak mantentzea eta beraz egiten ari ziren greba bertan behera utzi dutela adierazi zuen atzo Joseba Iturbe ELA-ko ordezkariak. «Gipuzkoako Foru Aldundiak Gerontologikoan zituen asmoak ezin dituela aurrera eramanez, esleipenera azaldu ziren kontratek, mugagabeko greba eta mobilizazioen aurrean alde egin dutelako» azaldu zuen eta «ondorioz zegoen kontratari kontratua luzatzea besterik ez zaiola geratu, lehen zituzten lan baldintzak mantenduz».

Garbiketa eta jangela zerbitzuetan egoera hobetu bada ere, oraindik ez da erabateko adostasunik lortu.

TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

LEHIAKETA

Gobernu Batzarrek, 2004ko irailaren 20an, onartu egin zituen honako lan hauek adjudikatzeko baldintza administratiboen agiria. Leidor zinema erreformatzeko proiektua egitea.

1.- Helburua: Hurrengo lan hauek: Leidor zinema erreformatzeko proiektua egitea, Lan horrek bi dokumentu edukiko ditu: oinarritzko proiektua eta exekuzio proiektua; honako atal hauek jasoko ditu: eszenatokiaren egokitze eta ekipamenduaren proiektua xehetua, Segurtasun eta osasun estudioa eta kalitate kontrolaren programa. Zuzendaritza fakultatiboa, obra zuzendaritzarekin (goi mailako teknikaria) eta obraren exekuzio zuzendaritzarekin (erdi mailako teknikaria), eta segurtasun eta osasun alorreko koordinazioa eta obrak egiterakoan gauzatu beharreko kalitate kontrola, Beharrezkotzat jotzen diren obra bukaerako planoak, Jarduera Proiektua eta Larrialdietako Plana.

Erreforma proiektuak bat etorri behar du baldintza teknikoan agirian jasotako zehaztapenekin eta aipatu agiriarekin batera doan beharren planarekin.

Ondorio honietarako, aurreikusitako obraren kontrata bidezko exekuzioak ezin izango du gainditu 1.800.000 euroko kopurua, BEZa barne. Era berean, adjudikaziodunak zinetokiaren egungo egoeraren jasoketa egin behar du.

2.- Litzitazioaren zenbatekoa: 191.898,00 euro (BEZa barne).

3.- Exekuzio epea: proiektuak egiteko lanaren adjudikazioa jakinarazten denetik, 5 hilabete epea izango da dokumentuak aurkezteko. Tarteko epeak hauek izango dira: - Oinarritzko Proiektua: 2 hilabete, - Exekuzio Proiektua, Segurtasun eta Osasun Estudioa, Kalitate Kontrolaren Programa eta Jarduera Proiektua eta Larrialdietako Plana: 3 hilabete, Oinarritzko Proiektua onartzeko udal erabakia jakinarazten denetik.

4.- Espedientea ikusteko: Tolosako Udaletxeko Erregistro Bulegoan, Plaza Zaharra, 6-B (Tel.: 943-65-44-66).

5.- Behin-behineko fidantza: Ez.

6.- Behin-betiko fidantza: Litzitazio zenbatekoaren % 4.

7.- Eskaintzak aurkezteko tokia eta epea: Tolosako Udaletxeko Sarreara Erregistroan, Plaza Zaharra, 6-B, 2004ko irailaren 20 eguna arte (13:00ak baino lehen).

Tolosan, 2004ko irailaren 30an.
ALKATEA

matraka.info!

ALTZO ▶ HEZKUNTZA

Eskola berriaren proiektua azaltzeko bilera izango da

Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza Saileko ordezkari bat izango da astelehenean, urriaren 4ean, egingo den bileran

OLAIA ESKITXABEL

Santa Barbara ermitaren eta pilotalekuaren inguruan dagoen lur sailean eskola berria eraikitzeko proiektuak martxan jarraitzen du; Altzoko Udalak 2002ko urrian Eusko Jaurilaritzaren esku utzi zuen lur sail hori, eskola martxan jartzeko beharrezko urratsak eman zitzaizkien.

Orduz geroztik, Eusko Jaurilaritzaren esku geratu da Altzoko

eskola berria eraikitzeko ardurak; proiektua idazteaz gain, eskola egingo duten kontratistaren aukeraketa eta eskola berriaren lanei ekitea.

Egungo egoera

Apirila inguruan lanak hastea espero bazen ere, eskola eraikitzeko proiektua idazten dihardu oraindik Eusko Jaurilaritzak.

Gauzak horrela, astelehene-

an, urriaren 4ean, Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza Saileko ordezkari bat gerturatuko da Altzora «proiektuaren berri ematera eta egutegiaren inguruan hitz egitera», azaldu dute udaltekik.

Herriko eskolaren proiektuaren inguruan interesa duten herritarrei, astelehenean udaltekiko kultur ganbaran 17:00etan egingo den bilerara agertzeko gonbitea luzatu die Altzoko Udalak.



Drogak eta familia hizpide atzokoan

BIDEGOIAN ▶ Drogomenpekotasunaren prebentzioan familiak duen garrantziaz mintzatu zen atzo, besteak beste, Txus Kongil, Askagintzako kidea. Bertaratu ziren herritarrek interes handiz jarraitu zuten hitzaldia; ikuspuntu desberdinak alderatzerakoan ere parte-hartze handia izan zen. Kultur Astearen baitan egindako bigarren hitzaldia izan zen

atzokoa; gaur, 20:00etan mendi diapositiba emanaldia eskainiko du Ion Beloki mendizaleak balioanitzeko gelan. Bihar izango da XV. Kultur Astearen azken eguna; txikientzat jolas parkea izango da egunean zehar. Arratsaldean, Poxpolo eta Mokolo pailazoaren konpainian jolasteko aukera izango dute. Eta, txokolatea janean agurtuko dute Kultur Astea. O.ESKITXABEL

IBARRA ▶

Kilometroetara joateko izen-ematea Karlartz-en

Igandean, urriaren 3an, izango da Zarautzen eta Orion Gipuzkoako Ikastolen jai handia; Ibarrrako Gazte Asanbladak Ibarrratik bertara joateko autobusak antolatu ditu. Goizean abiatuko dira Kilometroetara eta gau partean buelatatuko dira etxera; autobusean joan nahi dutenek Zubiaurre tabernan eta Karlartz garagardotegian eman dezakete izena.

IBARRA ▶

Kultur lantegietan izen-ematea zabalik

Ibarrrako Kultura eta Gazteria Sailak, kultur lantegietako eskaintza zabala aurkeztu du: lorezaintza, ehoziriak, bainika eta aretoko dantzak II. Naiz eta izena emateko epea amaitu den, hainbat lantegitan lekua geratzen denez, interesaturik dauden pertsonen matrikulatzeko aukera eskaini nahi izan die. Ikastaroen zenbatekoa 90,35 eurokoa izango da. Izena emateko Benito Izagirre kultur etxeko telefono zenbakietara (943 67 03 99 edo 943 67 05 61) deitu daiteke. Azken eguna datorren ostirala, urriaren 8a, izango da.

IKAZTEGIETA ▶

Yoga ikastaroa astean bitan izango da

Iaz yoga eskolak eskaini ziren herri eskolan; pasa den astean, aurtengo ikasturtean ere jarraitzeko gogoz zeuden hainbat herritar bildu eta yoga ikastaroarekin jarraitzea erabaki zuten. Astelehenean eta asteazkenean izango dira yogako eskolak herri eskolan; 19:00etatik 20:00etara ariko dira bertan yoga ariketarik egiten.

BERASTEGI ▶

Errentamenduei buruzko hitzaldia Gaztainondon

Hiri-errentamenduen inguruan eta horiek sortu ditzaizketen erantzunkizun zibila- ren gaineko arazoei buruzko hitzaldia eskainiko du gaur Alejandra Murua adituak. Besteak beste, hiri-errentamenduen kontzeptuaz, kontratuen iraupenez... hitz egingo da bertan. Kutxa Ikasgelak antolatutako hitzaldia Gaztainondo Jubilatu Elkartean izango da, 17:30ean.



Ehohiriak egiten ikasteko aukera izango da, besteak beste. HITZA

ORENDAIN ▶

Biasterira irteera Eltxo elkarteak antolatuta

Biasterira (Errioxa) abiatuko dira bihar hainbat orendaindar Eltxo elkarteak antolatuta; irteera horretan Heredad de Ugarteko bodega bisitatu dute; ikustearrekin batera, bertako ardoak dastatzeko hamaiketako eskainiko diete. Ondoren, 14:30ean bertan bazkalduko dute. Autobusa 09:00etan jarriko da Errioxara bidean.

www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albistek, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

eztabaidako galdera berria:

Zer iruditzen zaizu Rodriguez Galindo kartzelatik ateratzea



ADOS NAGO ▶ GAIZKI IRUDITZEN ZAIT ▶ EPAILEEN ERABAKIA DA ETA KITTO

PILOTA ▶

Olazabal eta Iriartek pilotako DV Torneoan parte hartuko dute

Jubenilen mailan aritzen dira biak hala biak eta aurreneko aldiz parte hartuko dute torneoan, beste kide banarekin

JAIONE ASTIBIA

Gaur zortzi pilotako torneo honen aurkezpena egin zuten Donostian eta bere horretan parte hartuko duten 72 pilotariren

artean, Aresoko eta Leitzako bi ere, han ziren: Mikel Olazabal eta Mikel Iriarte, hurrenez hurren.

Biek hala biek ere jubenilen mailan jokatzeko dute eta tor-

neo hau bi-bitara jokatzeko bada ere, oraindik ez dute elkarrekin jokatu, aurka baizik, bikote modura bataketan eta besteak, berriz, Elurbe

lizartzarra, aurrean. Torneo gaur hasiko bada ere, bi pilotari hautzat beranduego iritsiko da norgehiagokan hastera tenorea. Iriartek Sunbilan jokatu ekinen dio lanari, hil honen 29an. Olazabalek, aldiz, aste bete lehenago jokatu behar du, Leitzan bertan.

Edozein moduz gaur Lezoen hasiko den torneo honen hamahirugarren edizioa, abenduaren 25ean, Zarautzen jokatu den finalarekin bukatuko da eta han elkar ikustea ez litzateke batere txarra izanen bi gazte hautzat, noski, izan ere, txapeldun eta txapeldunorde izanen liratekeen seinale baidateke hori, ordena, beti ere, beraien trebeziaren «eskutan» utziz.

MIKEL OLAZABAL ▶ AURRELARIA

«Pilota bizibidetzat nahi dut, noizbait iristen banaiz; bidean noa»

18 urte bete berri dituen aresor honek pilota afizio baina ofiziotzat nahi luke eta bidean da. **Aurreneko aldian da torneo honetan jokatzeko duzula?** Bai. Iaz saiatu ginen sartzen, baina berandu ohartu ginen. **Garrantzitsua da, zuretzat?** Bai, aurrera samar ibiltzen bazara, izena hartzen da eta txapelketetatik deitzeko ere aukera gehiago izaten dira. **Zer moduz ari zara oraindik nokoan?** Ongi. Final askotara iritsi naiz, eta ez jakin zergatik, 10 bat galdu egin ditut. **Gainerako pilotariak ezagutzen dituzu?** Bai. Faboritoak Uriarte-Iza bikotea dira. Lanak izanen dira.



J. ASTIBIA

Zer lan egiteko asmoz?

Esperantza ona izan behar da. Zaila da, baina besteek ere 22 tanto egin beharko dituzte.

Kidearen ezaugarriak:

Saiatua eta bizkorra da. Gustura ari naiz berarekin, prestaketetan eta. ◀

MIKEL IRIARTE ▶ ATZELARIA

«Pilotaren inguruan jarraritu dut, baina ikasketak utzi gabe»

Leitzako 17 urteko gazte honek berriz, pilotan jokatzeko du gustuko eta hortik gorakoak ongi gietorriak izanen dira.

Denbora asko daramazu pilotan jokatzeko?

7 urtetan Aurrera KEko pilotaskolan sartu nintzen geroz. **Txapelketetan eta parte hartu izanen duzu. Zer moduz?** Gustura aritu gara. Normalean aurre samarrera aialatu gara.

Eta torneo honetan?

Jubeniletako lehenengo urtekoak gara eta aurreneko aldian da hor sartzen garena.

Eta nola ikusten duzu lehia?

Zaila. Bikote oso onak daude, zaharxeagoak, eskarmentu gehiagorekin. Gure aldetik dena jarriko dugu eta aurka-



J. ASTIBIA

riek gehiago jarri beharko dute.

Nolako da laguna?

Oso ona. Osoa. Aurrean jokatzeko du gustuko, pikea sortuz.

Eta zu, zeror?

Segurua naiz eta aurrekoari ahal dela lagunduz. ◀

LEITZA ▶ HIRIGINTZA

Elgoien auzoan, Goiko Landarekin mugan, etxe berriak eraikitzen ari dira

Lur saila urbanizatuta dute lehenagotik eta orain, bina etxebizitzako bi etxe egitera doaz

J. ASTIBIA

Gaur egun herrian garabi batzuk ikus daitezke, eta horietako bat Elgoien auzoan eraiki-

tzen hasi diren etxeei dagokie. Aztieta eta Erasunetik Landa aldera dagoen eta jabego partikularrekoa den sail hori, ja-beek, aurrea urbanizatu egin

zuten, ekimen pribatuari dagokien moduan. Hau da gerorako beharrezko izanen zitzaizkien zerbittuak sartu zituzten: etxetarako argia, ura, gasa... kaleak, aparkalekuak, argiztapen publikoa... egin zituzten. Eta orain berriro, jada etxeak eraikitzeari ekin diete.

Bertan bi etxe egin behar omen dituzte, hor dagoen kale berri horren alde banetan, ondoko etxearekiko pare-pare, biak ere bina etxebizitzakoak, gutzira beraz lau. Goragoan, lur sail berean, beste bi etxebizitzarako tokia logoke.

LEITZA ▶

Zarautz-Orioko Kilometroak ekitaldirako autobusa bada

J. ASTIBIA

Datorren igandea Zarautz eta Orion izanen den Kilometroak-erako autobusa antolatuta da Leitzatik ere eta bidaiariko txartelak Torrea edota Gaztañaga tabernetan. eros daitezke 8 euroren truke.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaldia. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldia. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
▶ Anbulatorioa, larriald:461111
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Asunzioz klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona-Aiztondo.
Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Taxia: 67 04 20

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
▶ Arramele-AEK: 67 12 14
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Tolosa, Nagusia 7 (Tolosa). 943 67 06 48.
Plaza M., Elbarren 36 (Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_publi@tolosaldeko hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko hitza.info
Villabona-Aiz. 687 41 00 22.
villabona_aiztondo@tolosaldeko hitza.info
Anoetaldia. 687 41 00 22
anoetaldia@tolosaldeko hitza.info
Ibarraldia. 687 41 00 32.
ibarraldia@tolosaldeko hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegialdea@tolosaldeko hitza.info
Leitzaldea. 687 41 01 18.
leitzaldea@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Autoa salgai. Ford Mondeo. Bi urte. 11.000 euro. 635 75 19 72.

LANA

Berastegi. Solfeo eta akordeoi irakaslea behar da, eskolaz kanpoko jarduerarako. 660 02 91 96. Arantxa.
Tolosa. Pertsona euskalduna behar da, goizez, bi haur zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 67 27 96 - 652 72 62 88.

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko urriaren 1a, ostirala ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abeltzasketa, Aduna, Abotzur, Alegia, Alkiza, Alzo, Ametzeta, Anoeta, Balarriain, Belantzia, Berastegi, Etxaur, Herriak, Ibarra, Itua, Lartzu, Leizorri, Lizarrin, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona, Zuzurki

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurantza.
Kultura Saila

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

22

hotzera

17

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. Jubilatuen egoitza berriaren inaugurazioa. 17:00etan, San Juan kalean.
Bidegoian. *Jainkosaren altxoan* diapositiba emanaldia, Ion Beloki mendizalearen eskutik. Bidanien, balioanizdun gelan, 20:00etan.
Ibarra. Gizakatea, Ion Mintegiaga atxilotu zutela bi urte direla eta. 19:15ean, Ibarroko plazatik.
Tolosa. *Emakumeon kontrako indarkeriari aurrea hartu* lelopean, kontzentrazioa, 20:30ean, Trianguloan. Aste honetan Bilbon gertatu den emakumearen hilketara salatzeke.
Tolosa. Kontzientzia Globalari buruzko jardunaldiak. Gaur, *Yoga: xumea izatearen artea*. Alfredo Iglesias adituarekin. 20:00etan, Kultur Etxean. Yoga elkarteak antolatuta.

JAIAK

Irura. 19:00: kalejira buruhandi eta erraldoekin; 19:30: txistor jatea; 22:30: *play-back* jaialdia; 00:15, Izotz taldearekin dantzaldia.

KILOMETROAK 04

Amezketak. Gazte Taldeak antolatu du Zarautz-Orioko Kilometroetara joateko autobusa. Izen-ematea herriko tabernetan. Irteera 09:00etan plazatik.
Ibarra. Gazte Asanbladak antolatuta. Zubiurre eta Karlatz tabernetan eman behar da izena.
Leitza. Torrea eta Gaztañaga tabernetan eman daiteke izena. Prezioa: 8 euro.
Tolosa. Galtzaundik antolatu du. Izen-ematea bertan 18:00etatik 20:00etara (943 65 50 04) 9 eurotan (bazkideek 6). Irteera zezen-plazatik, 09:00etan.

KIROLAK

GAUR

Esku pilota (Gipuzkoako Elkarteen Artekoa)
▶ Kuku-Zarautz2 (Jubenil 3. Maila. Eskuz binaka. 20:00, Anoeta).
▶ Kuku-Hernani (Nagusiak 3. Maila. Eskuz binaka. Ondoren, Anoeta).
▶ Zazpitiurri-Erniopio (Kadeteak. Eskuz binaka. 21:00, Amezketak).
▶ Zazpitiurri2-Illunpe (Kadeteak. Eskuz binaka. Ondoren, Amezketak).
▶ Zazpitiurri1-Olalde (Kadeteak. Eskuz binaka. Ondoren, Amezketak).
▶ Añorga3-Zazpitiurri1 (Gazteak. Eskuz binaka. 19:00, Añorga).
▶ Gazteleku-Zazpitiurri2 (Gazteak. Eskuz binaka. 21:30, Andoain).
▶ Eibar-Zazpitiurri1 (Nagusiak. Eskuz binaka. 22:00, Eibar).
▶ Aurrera Saiatz3 (Unai Aspe-Ion Orbegozo)-Aretxabaleta1. (Nagusien 3. Maila. 20:00, Ibarra).
▶ Aurrera Saiatz1-Murumendi (Igor Aranzabe-Eneko Galarraga). (Nagusien 3. Maila. Ondoren, Ibarra).
▶ Aurrera Saiatz2 (Ugaitz Renobales-Julen Mujika)-Tartaloetxe. (Nagusien 3. Maila. Ondoren, Ibarra).
▶ Elordi Herrigintza-Erniopio (Kadeteen 3. Maila. 21:00, Ikaztegieta).
▶ Elordi Herrigintza-Ramuntxo (Kadeteen 1. Maila. Ondoren, Ikaztegieta).
▶ Elordi Herrigintza-Zumaia (Gazteen 2. Maila. 19:00, Zumaia).
▶ Lazkao-Usturibil (Kadeteak. 20:00, Orendain).
▶ Lazkao-Azpeitia (Afizionatuak. Orendain).
▶ Lazkao-Bergara (Afizionatuak. Orendain).



Oskorraren 'Desertore'

TOLOSA ▶ Oskorri taldeak *Desertore* disko berriaren doinuak ekarriko ditu gaur Tolosara. 22:30ean hasiko da emanaldia. Leidorren. HITZA

Paleta goma

(20:00etik aurrera, Anoeta. Nagusiak neskak)
▶ Kuku1-Urrietako.
▶ Kuku2-Intxaurren.

Zesta-punta

(Elkarteen Arteko Txapelketa; Santa Luzia, 19:00)
▶ Beotibar1 (Telleria-San Sebastian)-Zumaia2.
▶ Beotibar1 (Artetxe-Errendosoro)-Gazteleku2.
▶ Beotibar2 (Trabazos-Gonzalez)-Zumaia1.

Ziklo-krosa

▶ Haurren II. Ziklo-krosa (16:30, Asteasu).

BIHAR

Areto futbola

▶ Hegoalde-Femesala Elx (Emakumezkoen Ohorezko Maila. 19:00, Berazubi).
▶ Virgen De Vico-Ibarra (1. Maila A. 19:00, Añedo).
▶ Iturriondo P.Izkara-Laskorain (1. Maila B. 16:15, Txuridinaga).

Esku pilota

▶ Behar zana-Urnieta (Kadeteak. Eskuz binaka. Gipuzkoako Txapelketa. 12:15, Amasa).
▶ Behar zana-Baigorri (Joko

garbi seniorrak. Euskal Herriko Txapelketa. 17:00, Amasa).

▶ Anaitasuna-Zazpitiurri2 (Nagusiak. Eskuz binaka. Elkarteen artekoa. 10:30, Azkoitia).

▶ Intxaurondo-Zazpitiurri (Nagusiak 2. Maila. Eskuz binaka. Elkarteen artekoa. 17:00, Intxaurondo).
▶ Bergara-Aurrera Saiatz (Mikel Beloso-Iker Huarte). (Nagusien 1. Maila. 19:00, Bergara).

Halterofilia

▶ Euskadiko Txapelketa 15 urte azpikoentzat. Danena-Olaederra taldekoek hartuko dute parte (11:15, Olaederra kiroldegia).

Futbola

▶ Tolosa-Aretxabaleta (Gorengoen Maila. 16:30, Berazubi).
▶ Vasconia-Tolosa B (Lurraldekako 1. Maila. 15:30, Herrera).
▶ Amaro-Lasarte Oria (Lurraldekako 2. Maila. 17:30, Elorri).
▶ Lazkao-Intxurre Lurraldekako 2. Maila. 18:30, Alustiza).
▶ Billabona-Hernani (Jubenilen 1. Maila. 16:30, Aratzain).
▶ Intxurre-Añorga (Jubenilen 1. Maila. 15:30, Elorri).
▶ Aloña Mendi-Tolosa

(Jubenilen Euskal Liga. 10:30 Azkoagain).
▶ Tolosa-Peña Ath.Santurtzi (Kadeteen Euskal Liga. 18:30, Berazubi).

Saskibaloia

▶ Aralar-Allerru (Senior Maila. Berazubi, 17.00).

Zesta-punta

(Santa Luzia Txapelketa. Carmelo Balda, 10:30)
▶ Erauskin-Alberro/Etxabe-Bildarratz (Infantilak).
▶ Gabarain-Etxabe/Manterola-Gurrutxaga (Infantilak).
▶ Ruiz-Izagirre/Sanchez-Narbarte (Infantilak).

ETZI

Errebotea

▶ Kapito Harri-Noizbait (Endika Abril Errebote Txapelketaren finala. 11:00, Errebote plazan).

Esku pilota

(Elkarteen Arteko Txapelketa)
▶ Hernani-Aurrera Saiatz (Koldo Galarraga). (Gazteen 1. Maila. 11:00, Hernani).
▶ Aurrera Saiatz (Beñat Iriarte-Axier Telleria)-Arrasateko. (Gazteen 2. Maila. 11:00, Beotibar).
▶ Aurrera Saiatz (Imanol Pastrain)-Añorga. (Nagusien 1. Maila. 11:00, Beotibar).

Futbola

▶ Aurrera-Ekuavarra (Lurraldekako 1. Maila. 17:00, Arkixkil).

Futbol 7.

▶ Lanbroa Dickens-Ibarroko Gazte Asan. (Beasain 1, 10:00).

MUSIKA

Tolosa. Obligaciones eta Captain Nemo. 22:30ean, Bonberenean.
Villabona. Donostiako Akordeoi Orkestra Sinfonikoa. 22:30ean, Gurean. Doan.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Amaur (Alegia).

Gaur 2 urte.

Zorionak eta muxu handi bat.



URTE ASKOAN

Josefa Tolosa (Amezketak).

Gaur zure urtebetetzea. Zorionak sendi guztien partetik.

Batez zure zure biloba Ibaik eta Harikatza.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tarteak
ezkontzak, jaioberriak...
zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!